» **38 ■ Pieza zaharrak gazteen modura**
Aspaldiko kantuekin 'Faborez' bildumako lehen diskoa kaleratu du Euskal Herriko Txikitixa Elkarteak.

»

40 ■ Jesse Jamesen mitoa erori da
Brad Pitt da 'The Assassination of Jesse James by the Coward Robert Ford' filmeko protagonista.

Galeuscan da **euskal espedizioa**

Galiziako, Kataluniako eta Euskal Herriko 40 bat idazle elkartu dira 'Iruditeria literaturan' gaia jorratzeko.

ARANTZAZU MUÑOA
Lugo■ Berriemaile berezia

Oroitzapena dago idatzirik biribilguneko kalargietan, Donostiako Pio XIIaren plazaren aldamenean. Gabonetarako jarriak dira, antza. «Baina, nola; Santu Guztietarako jarri al dituzte gabon argiak?», dio Xabier Gantzarainek. «Horiekin gastatzen duten energia guztia gastatu, eta argiaren kontsumoaz jardungo dira gero agintariak», gaineratu du Juan Ramon Makusok. Jaiegun horiez, eta santuak tarteko, izaten diren beste guztiez hizketan jarraitu dute bata bestearen atzetik.

Iratxe Retolaza falta dela, azken uneko arrazoiren batengatik ez doala. Hegazkinaren beldur delako autobusez joatekoa zen Aritz Gorrotxategi ere ez doala. Besteak autobus txikian sartu eta Loiura abiatu dira, han Santiagorako hegazkina hartzera.

Hamahiru euskal idazle elkartu dira Loiuko aireportuan. Lehen aldiz doaz batzuk Galeuscara, jakinminez daude; eta irrikaz ere bai. Beste batzuek orain hiru urtekoa gogoratu dute, Galizian izan zen orduan ere: «Allarizeko bisita gidatua oso polita izan zen. Herria bisitatuz gindoazen heinean, irakurketaren bat edo beste sartzen zuten, eta niri behintzat oso entretenigarria eta ederra iruditu zitzaidan», azaldu du Jon Abrilek.

Batzuek libururen bat eta besteek egunkaria eskuetan dutela egin dute Santiagorako bidea. Irakaskuntzaz, aseguruez, aisiaz, euskaraz... berriketan aritu dira. Gaur hizpide dutena izaten ote dute idazterakoan ere bide? Hurrengo egunetan, akaso, erantzungo diote galdera horri. Izan ere, iruditeriak literaturan duen eragina aztertzera etorri dira Lugora (Galizia), Galeuscara. Euskal idazleak hegazkinetik jaitsi direnerako zain dira katalanak. Elkar agurtu eta denak batera abiatu dira Lugora.

Cesareo Sanches Iglesias Galiziako idazleen elkarteko presidenteak ongietorria egin die 40 bat idazleri. Goizeko hitza erabili du: oroimena. «Zaila baita hori gabe hizkuntza eta kultura txikiek aurrera egitea».

Euskal idazleak Santiagoko aireportura iritsi berritan, atzo. ARANTZAZU MUÑOA

BERRIAK gonbidatzen zaitu
40 sarrera ditugu harpidedunentzat

VI. nazioarteko **trikitixa**
JAIALDIA
DONOSTIA



KURSAALgo ganbara aretoan, 2007ko **AZAROA**ren **10**ean, **19.00**etan

deitu: 943-30 43 45

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**